





TTiPi - TTAPA

82KO UDA -
UDAZKENA



SUSPELAN BARNA



Matxain



Ardanbide Goikoa



Mustila



Ardanbide Behekoa



Teiletxenea



Apexa Borda

"GU" TALDEAK EGINA

LAGUNTZAILEAK:

- BERA KO HERRIKO ETXEA**
- GURE TXOKOA S. C. R.**
- NAFARROAKO AURREZKI KUTXA**
- IRUNAKO AURREZKI KUTXA
MUNIZIPALA**
- PRINCIPE DE VIANA**

Hilargia nahi zuen harrapatu eta
arbola gainera igan zen.
Neguan arbolak biluzik bizi izaten
dira, eta hotzak daude gau eta
egun.
Hilargia nahi zuen harrapatu eta
negu gorria zen.
Hotzikara batek astindu zituen
arbolaren beso ihartuak, eta haien
artean geratu zen gatibu.
Arbola gainera igan zen negu
gorria izanik.
Biharamon goizean hezur izoztu
batzuk aurkitu zituzten arbola
inguruan.
Arbolak ezin baitzuen hilargia
neguan traizionatu.

Koldo Izagirre



TXISTUKA DATORKIT
AIZIA MENDITIK
TXISTUKA SARTZEN ZAIT
LEIO ZULOTATIK
AIDIAN ZIARKA
TXORITXO BAT EGAN
SUGASPE OTXO OTXUBAT
BILLA NAIRIKAN

» ATOZ NERE ETXERA
TXORITXO MAITIA
EPEL EPEL DAGO
NERE SUKALDIA
SU ONDOAN ZURE ZAI
NERE SEMIAK
ZUREKIN NAI DUTE
AUR JOLAS ZALIAK

SUKALDE TXOKOAN
URREZKO KABIYA
URREZKO KABIYAN
JANARI EZTIYA
GAU OTZ ILLUNEAN
ATERPE GOXUA
EGUZKI BERO EGUNIAN
ITZALPE TXIROA... »

URRUN TA URRUNAGO DUAYE
TXORITXOA BERE BIDIAN
NAIZ GOSEZ NAIZ NEKEZ
ZAURITURIKAN
TXORITXOK EZTU NAI
URREZKO KABIRIK
AZKATASUN GABE
EZ PAITU BIZIRIK

MAKAILOA BIZKAI ERARA

- Nahasgaiak: - 12 puska makailo
- 12 txorizotarako biper
(haundiak badire, gutti
ago).
- 3 tipula
- 200 gr. gantz
- Katilu ttiki bat olio
- urdaiazpiko puxka bat,
perrexila eta 2 arra-
ultzeen gorringoa.

Zaragin batean urtzen da urdaia.
Gantz urinarekin 4 goilare eta katilu
bat olio jarriko ditugu kazola baten.
Bertara tipulak xehe, xehe egin ondo
ren botako ditugu, eta bai ere urdaia
azpiko puxka eta perrexila, biekin
maxota bat eginez. Utziko dugu mant-
so egosten, su giblean, (bi orduz).

Tipula ongi egosia dagonean, botako
diogu katilu bat ur, eta utziko du-
gu egosten bertze ordu bat. Urdaiaz-
pikoa eta perrexila kenduko ditugu
eta saltsa pasatuko dugu puregailua-
rekin.


OHARRA: txorizotarako biperrak
jarriko ditugu bezperan
beratzen ur epelan, erditik
ideki eta haziak kenduta.

Makailo jarriko dugu beratzen
24 edo 36 ordu lehenago.
Egunean 3 aldiz ura aldatuz.

Mikaela Berasain

Biperrak arraskatuko ditugu eta mor-
tairuan jarriko ditugu ur eta ogi ma-
mi pixka batekin, ongi xehetu dena
eta pure gailuarekin pasatu tipula
saltsaren gainera. Bi arraultze gogo-
rren gorringoak ongi xehatu mortairu-
an, eta saltsa pixka batekin urtuta,
nahasi saltsari. Utzi berriro saltsa
egosten.

Lurrezko kazola batean jarriko dugu
sobratu zaigun gantz urina eta goila-
re batzuk saltsa, gainean jarriko
ditugu makailo puskak (hezur eta ezka-
tak kenduta eta zapi batekin idort-
ziak), saltsarekin tapatuko ditugu
makailo puskak eta utziko ditugu be-
rriro irakitan, makailoa egin arte
(20 bat minutu).



IGNAZIO ERRANDO- NEAREKIN

Ignazio, Gartzinekoa da, hemezortzi urte ditu eta dagoeneko ageri da pilotaren figura bat dela; berarekin elkarrizketa hau izan dugu:

TT.TT.- Zuk irabazi dituzun trofeo eta txapelketak, zenbat eta zein dira garrantzitsuenak?

Ignazio.- Irabazi ditut: Nafarroako Gazteen Txapelketa, Xll Graun Txapelketa Hamabortz Urtekoetan, bat bertzearen ondotik bi urtez, 23-peko Graun Txapelketa, Espainiako Afizionatuen Txapelketa, horiek dire garrantzitsuenak; gero Bidasoako Txapelketa eta hok, hotik aunitz. Berrogei ta hamazazpi trofeo dut, txapelak bestalde, erditsua baina gehixeago.

TT.TT.- Noiz hasi zitzaizun pilotari zaletasuna?

IG.-Hamaika urtetan jakin nuen hemen entrenamenduak, gertaraziak bazi rela eta hasi nintzen seriooki entrenatzen, gero hasi nintzen txapelketak irabazten eta horrela... Lehenengo ere banuen zaletasun haundia futbolara, ia hemen hasiz gero, futbola utzi eta pilotara lotu nintzen.

TT.TT.- Orain baduzu futbolari zaletasuna?


IG.- Zaletasuna ikusteko bai, aunitz, aldizkarik irakurtzea ere gustatzen zait, baina ez naiz batere aritzen.

TT.TT.- Pilotan aritzen zarenean, zein da zure gustoko lekua, aintzinean edo atzean?

IG.- Atzean, atzean, guztiz atzelaria naiz. Eskulari, manomanista ere gustatzen zait, baina gutti aritu naiz. Hemendik aintzinerara espero dut eskuz(mano a mano) entrenatzen hastea, ez dakit balioko duten baina saiatu behar dut behinpen.

TT.TT.- Nolako eskuak dituzu?

IG.- Ez naiz kexatzen, esku gogor xamarrek ditut, puska zaitzen ditut ere; aste artean etortzen naiz eskuak berotzera eta horrela... eskuak zaintzeko. Ez naiz kexatzen, esku onak ditut.



TT.TT.- Zein duzu oberena?

IG.- Ezkerra dut pixko bat seguroxoagoa, baina eskuinarekin fuertexeago jotzen dut. Eskuinarekin pixko bat gehixeago ut segiten dut, baina fuerteeago botatzen dut pilota. Ezkerra ere ona dut, baina ez dut hainbertze jotzen.

TT.TT.- Eta hasieratik horrela dituzu bi eskuak?

IG.- Ez,ez, hamalau urtetan edo horrela, eskuineko behatz bat xehetu zitzaidan eta hiru hilabetez ezker utsarekin arituz gero, honela gelditu zitzaidan.

TT.TT.- Partidoetan nerbiosten zara.lehendabizian tantoak galtzen ari zarelarik, ala azken aldera?

IG.- Lehendabizian, ni suertu naiz aunitzetan errate baterako 10-1 galtzen edo horrela, eta ez naiz behin ere nerbiosten; orain ia ondar aldera joanez gero errate baterako 21-19 galtzen, orduan ia nerbiosten naiz pixko bat, baina bertzela ez; hagitz trankil nago kantxan, kantxatik kanpora ere hagitz trankil naiz eta... ez dut aferik.

TT.TT.- Berako haur eta gazteetan, nolako zaletasuna ikusten duzu?

IG.- Beran behin ere ez da izan pilotan aritzeko zaletasunik.


Orain hasi dire Eskagües, Eskagües'en anaia eta nere anaia; gazteak ere badire puxka aritzen direnak: Irazoki eta bertze gazte batzuak.. baina ez da zaletasun haundirik.

TT.TT.- Orduan ez duzu egoera ona ikusten Berako pilotarentzat?

IG.- Hori, nola datorren..., gazte horiek hasten badire(oraindik ha gitz gazteak dire, hamaika- hamabi urte), horiek ateratzen badire.. .. ateratzen ahal dire, badute behinpen manera, gero ikusi behar da ea segitzen duten ala ez duten segitzen. Gazteek, Jubenilak, Eskagües eta.....pixko bat hasi dire,baina afizionatuetan ez da deus ere ez, eta hamabi hamabortz urtekoetan ere deus ere ez.

TT.TT.-Oraindik ez dakitenentzat, ze famili zarete? Zenbat zarete etxean?

IG.- gu, aita eta ama, arreba eta bi anai, eta bertze arreba espos-tua.



Amiel S

TT.TT.- Nola zaintzen duzu zure burua, jatekoetan, ariketetan?

IG.- Jatekoan, denetik jaten dut; pixko bat edanari....., ez erre... Kirola gutti egiten dut, pilotariak gehienetan kirola gutti egiten du; hori da inork hartzen ez duslako eta kirola egin erazten. Orain pentsamendua dut Gure Txokoarekin entrenatzen hastea Mundialaren ondotik eta ea horrela kirola pixko egiten duten.

TT.TT.- Nortzuk lagundu zaitute zu zauden lekuraino ailegatzen?

IG.- Gehiena Luis Pikabea, gure entrenadoreak. Horrek, ni amaika urtetan hartu ninduen eta erakutsi zidan pilotan aritzen, eskuinarekin eta ezkerarekin jotzen eta nola ari behar zen...dena, horrek dena irakatsi zidan. Sebastian Oartzabalek, adibidez, Lizarran edo Tafallan baldin bagenuen partidua, eraman egiten gintuen. Herrikoak horiek biek. Gehienak Luis Pikabeak, horrek du meritu haundiena.

TT.TT.- Etxean animatu zaitute?

IG.- Bai etxean animatu naute, kontseiluk eman eta....

TT.TT.- Gaur den eguneko, pilotarien artean, zein gustatzen zaizu gehiena?

IG.- Atzelarien artean Martikorena gustatzen zait gehiena, hagitz dotore da, bi eskuak berdinak eta.....; gero Galarza ere, hagitz pilotari polita da; aurrelarien artean Bengoetxea 14.a gustatzen zait aunitz; eta eskularien artean Retegi 11.a gehiena.

TT.TT.- Zure ilusionak?

IG.- Ea Mundialaren ondotik profesionaletan hasten naizen eta ea hoberenetara ailegatzen naizen, nere ilusioia, ea atzelari on bat ateratzen naiz.

Beran, Eztegarra pilota lekuan
Irailaren 21 ean.

Primaderako Liliak

Primaderako liliak
Goizik ziren loratuak,
Urte hartan gertatu zen
Pazku erramu baiño lehen.

Gaituzte ezkontarazi,
Maite ninduzun hain guti;
Ezkontarazi gaituzte
ez zintudalarik maite.

Genuelarik elgarri
Eman biziko uztarri,
Ez kilak zeuden ixilik
Nik ez baitakit zergatik.

Gaituzte ezkontarazi.....

Ez zuten egin boleran
Menturaz ziren Erroman,
Ez ziten gure lekuko
Ez izanen bataiko.

Gaituzte ezkontarazi.....

Nunbait balinba zero
Gure haurra aingeru,
Aingeru zeruan bainan
Umerik ez ohandzean.

Gaituzte ezkontarazi.....

Bihotza hotzez kaskaran
Nago geroaren menturan,
Etor bedi primadera
Kanpoak ditene berriz lora.

Gaituzte ezkontarazi.....

Xoriak amodiotan
Berriz hastean bertsoan,
Leioa dut idekiko
Amodioa da sartuko.

Gaituzte ezkontarazi,
Elgarrekin behar bizi;
Ezkontarazi gaituzte
Behar dugu elkar maite.

Michel Labeguerra Iratzet



amets txar bat

Nere herrian bazen mendi haundi bat eta bertatik alderdi eta bazter zoragarriak ikusten ziren.

Artaldeak, betizuak eta pottokak betidanik mendi horren maldetan, belar berdez apaindutako maldetan alegia, bazkatzen ziren.

Haren arboladietan hegazti pila batek beren habiak egi ten zituen eta azeriak, erbinudeak eta bertze piztiak ere zelatan egoten.

Noizik behinka basurde taldeak agertzen ziren, amurraia hazitzen zen erreka bazterretan beren arrastoak utziz.

Haren harmasazko tontorrean hegazti harrapariak hegatzen ziren, zerua inguru haundiz zeharkatzen zutelarik.

Artzaiak, nekazariak, kontrabandistak eta mendigoizaleak haren bidetik ibiltzen ziren Izadiarekin, Naturalezarekin osoki el karturik.

Aditzen ahal ziren soinu guziak xorien kantak, ardien marrakak eta gurdi kurrinkak izaten ziren.

Bizimodu berriak pixkaka pixkaka gauzak aldatu zituen. - Mendi kaskoan, bertara oinez edo funikularrez igaten ziren turis tentzat eta mendigoizaleentzat, dendak ideki ziren; horrela, inguru zabalak ikusi ondotik gosari ederrak egiteko modua izaten zuten.

Harri eta lurrezko pista bat ere egin zen mendi gainera ino eta hartaz baliatzen ziren batzuak beren dendak hornitzeko eta bertzeak mendi kaskoraino igateko.

Baina egun batean, hor non egiten duten galipotezko bide zabal bat mendi tontorreraino. Ez dakigu nolako arrazoiak izan ziztuzten holakorik egiteko, baina agudo ikusi ziren haren ondorioak. Basa animaliek, automobilen ke eta soinu iziturik eta beren lehen go bizilekutan indarrez sartutako jendeak zirikatutik, alde egin zuten. Aunitz, erruedak azpian harrapatuta hil ziren. Mendia plastikoz, latatz eta botila hautsiz betetako zikintokia bihurtu zen.

Igandero jendea ehundaka joaten zen mendira eta egun batez horietako batek sua gaizki itzalita utzi zuen eta handik ikaragarritzko sugarra sortu zen. Orain dena aldatu da; hondamena da hango jaun eta nagusi.

Bat batean, ordulariaren txirrina entzun dut eta ernatu naiz. Dena amets bat izan da, amets txar bat. Jaungoikoak ez dela nahi horrelakorikan gertatzea.

J.I.O.

Guri erdaraz emana

Gure

•••baserri

Baserritaz pentsatzen jartzen geranean, baserritaz hitzegiten dugunean, bi gauza, bi erataraztertzen ditugu: alde batetik baserriko bizimodu lasaia, naturakin ados dagoen bizimodua, eta bestetik baserriko lanetik bizitzeak dakarren arazo ekonomikoa. Segun nork aztertzen duen, garrantzi gehiago emango dio gauza bateri edo besteri: normalean, kaletarrek, industri- an lan egiten dutenek, natura asko baloratzen dute; baserri-rrak berriz, nahiz hau ere balo-ratu, bere burua eta familia aurrera ateratzea bilatzen du.

Garai batean, duela 20-30 urte bitarte, baserria zen Euskal Herriko gizartearen basea, baserriak osatzen zituen orduko gizonaren beharrak. Izan ere, orduan, tripa bete, jantzi eta zertxobait gehiago aski baitzen.

Geroztik, industriarekin ba-tera, gizartea aldatuaz, beste behar batzuk sortuaz joan da (jateko eta jazteko era, kotxea... bizitzeko era), eta baserri-rrak bi modutara jokatu dute: Batzuk, gutxienek, lengo bizimodu ari jarraitu diote, bere baserri-ko estrukturarik aldatu gabe; gehienek, aldaketa hortara apun-tatu nahi izan dute eta honekin dator baserriaren aldaketa: bizi berri honen ritmoak diru gehiago eskatzen zuen eta hau lortzeko, gehienek fabriketara jo zuten, batzuk baserriko lanari jarraitu-az eta beste batzuk erabat utziaz; eta gutxienek baserrian jarraituza erabaki zuten, baina bere estruk-tura aldatuaz.



Baserriaren arazoa zertan den

Gaur egun, gizarteak dauzkan estrukturak, zerbait rentablea egiteko, bere ritmoan bizi ahal izateko, PRODUKZIOIA eskatzen du, eta baserria alde hontatik azter-tu eta irtenbide bat emateko, bi gauza behar ditugu kontuan: lurra eta saltzeko modua edo komerzializazioa. Hauek esango digute base-rri batek nondik jo behar duen diru aldetik rentablea izateko.

Beti entzun izan ohi dugu: "baserri hau fuerte duk"... edo "baserri txar hortatik nola bizi? segun lur asko edo gutxi duen baserri izan, lurretik ateratzen bait da belarra, eta gaur egun baserri gehienetan belarra jaten duten hazinda (behiak, ardiak) da diru iturrik haundiena. Kontuak hartzen badugu lurra behar bezala erabili ezkeru (abonu behar hainbat eta bere garaia botata eta be-larra ongi aprobetxatuta) hekta-rea bakoitzeko (10.000 m²) bi behi edo 18-20 ardi bazkatzeko posibilitadea dagoela, zenbat baserri dauzkagu hatik utsa jarraitzeko hainbat lurrekin?



Bestalde, belardi gehiago behar dela jakinda, zer gertatzen da herrilur edo komunalekin? Iratzia behar da, pinuak behar dira, baina bere lekuan eta ez belardi eder egon daiteken leku eder batean: lurraren planifikazioi bat behar da, eta hau Diputazioi a eta herrietako udalak egin behar dute. Gure baserri belardi gehiago eskatzen du, propietadean, errentan, edo nolabaiteko kontratoren bidez, zeren nola hemengo klima aproposa da belarrendako eta orduan, behiak, ardiak eta, belarra behar duten abere guztien dako. Beraz, ganadu klase hontatik gehiago jartzeko, produkzio gehiago hartzeko, lurra behar da.

Gainera, hazinda gehiago jartzeak, lana erreztea eskatzen du: behar bezalako instalazioiak, pixkat mekanizatzea, ganadu ahalik eta gehiena bere gisara bazkatzera aurrez belardiak itxita..... baserriaren estruktura aldatzea eskatzen du.

Honek, lur posibilitadea dauzkaten baserrientzat balio du, baina, zer gertatzen da besteekin? 5-7 hektarea dauzkaten baserriekin? belar gutxi, ganadu gutxi, produkzio gutxi eta, beraz, diru exkaxia. Baserri hauek, daukaten hazindaz gainera, diru laguntza bat izateko, lur gutxi behar duten produktoak produzitu beharko dituzte: zerriak, konejuak, oilaskoak, frutalak, baratza, negutegi edo "invernadero"....

Norbaitek hau irakurtzean pent satuko du ametsetan ari naizela, ezin direla baserriko estrukturak horrela aldatu, diru asko behar dela, esatea erreza dela.... Bai, esatea erreza da eta gehiago aztertu gabe hotz egiten da. Gainera baserritarra deskonfiatua da berez, badu arrazoi pixkat izateko ere, eta beti kostatzen zaio lanzatzea. Hala ere, ikusten dugu lanzatu direnak ari direla produzitzen, baserria diru aldetik rentablea egiten. Eta baserritarrak, hasieran esan duten aldaketaren ritmoan sartu nahi badu, hemendik jo beharko du: lenengo bere baserriaren estudio bat egin beharko du zer nolako posibilitade dauzkan ikusteko eta gero lanzatu. Gaur, baditu laguntzak estudio hori egiteko (diutazioko, I.T.G.ko, Agencia Desarrollo Ganadero-ko teknikoak) eta baita ere diru laguntzak aldaketa haik egiteko.

Artikulo honetan, produkzioz aritu naiz bakarrik, komertzializazioa alde batera utzirik eta gauza nahiko jeneralak esan ditut, gai asko ikuituz: komunalak, belarra, ganadua, mekanizazioa, lur gutxi behar duten produktoak, diru laguntzak..... Gai hauek aztertzeko artikulu gehiago behar dira eta beste baterako utzi beharko.

Bukatzeko, eskatuko nizueke konparazio bat egiteko garai bateko baserriaren bizimoduaren eta produzitu beharrak eramaten gaituen baserriaren bizimoduaren artean: kasu honetan, bizia ez da hain la sai, baserria enpresa bihurtzen da..... baina baserritarrak naturan lanegiten jarraitzen du.

Pili Intsausti

sugeak

ezagutu

Jende aunitzek beldurra dio sugeari, bertze batzuek gorrotoa eta bakarren bat ikusten dute --nean, hura hil arte ez dute bake rik izaten.

Orain arte sugeak beldurgarriak direla erakutsi digute, - baina hau ez da oraingo gauza, - bibliaz gero sugeari bizia ha -- gitz beltza jarri baitiogu.

Niri iduritzen zait sugeak ez direla hainen beldurgarriak -- zagutzen baititut eta bai baita -- kit zein diren pozoidunak eta - zein ez.

Orain ikusiko ditugu inguru honetan bizi diren sugeak eta - heuren ezagutzeko seinaleak eta bizimoduaren gorabeherak.

Suge-itsuakin hasiko gara: Ez du pozoirik, aunitz ikusten - da gure sorotan, baina eskasten ari da bertzeak bezala. Uher dir diratsua da eta luzetasun ttikia izaten du, erraz puskatzen da eta soroko armigoz eta mamorro -- ttiki guziez bazkatzen da. Jen - deak hala uste badu ere, ez da - itsua.

Suge Urdina: Bertzea baino eskasagoa da soro bazterretan eta mendian bizitzen dena, baina beti sasi edo harmasa batzuen on doan zerbait sumatzen dutenean -- gordetzeko, alegia. Luzetasun ederra dauka eta urdintsua edo ilunagoa izaten ahal da larrua al daberria edo zaharra duenean.

Batzuek suge ilunagoa ikusten dutenean bertze sugea dela - uste dute, "Malakasta" deitzen - diotena. Mamorro aunitz, saguak, apoak, etab. jaten ditu. Berez - nahiko motela da, baina eguzki - ederra denean agudo bizkortzen - da; eta ehizian dabilenean ha -- gitz ederra eta ikusgarria da; - ez du pozoirik.

Lepo xuria: Bertzea bezala sorotan eta menditan bizitzen da, aistikoa baino beltzagoa eta lepoan koilare xuria dauka. Bere - bizimodua suge urdinaren gisakoa da, hura baino bizkorragoa eta - ttikiagoa, norbait sumatzen duenean laster gordetzen dena; ez - du pozoirik, jende aunitzek bertze aldera pentsatzen badu ere.

Azkenerako suge gorria gel-ditu zaigu: Suge gorria da pozoi dun bakarra eta horregatik erres petu pisko bat behar diogu. Gehienetan luzetasun ttikikoa da, baina gorputz gizona eta buztan motza; marroia da eta badauka marratzto bat alde batera eta bert zera bizkar gainean. Bertze sugeak beren janariak bizirik ires ten hasten diren bitartean, honak autsiki egin eta hil ondoren iresten ditu; eta beti iretsi egiten dute hila edo bizia, haundia edo ttikia. Suge gorria da gure inguruko sugeen artean bereziena eta ezagutzeko ez da zaila.

Inoiz bide batean subertzen bazaigu suge bat bidea guruzten edo bazterrean eguzkia hartzen, hurbilduta zaude begira: laster eskapo gordetzera baldin badoa, utzi, ez da suge gorria izanen. Suge gorria, inor hurbil ikusten duenean, bertan gelditzen baita bilu-bilu egin eta, burua erdian eta lepoa atzeratuz, inork ukitzean autxiki egiteko prest. Bizia eta bizkorra da; makil edo bertze zerbaiten bidez berari -- gorputza ukituz gero, ez da erraz autsikirik egin gabe geldituko.

Badauka bi letagin, barren-dik hutsak eta meheak, baina pozoia ez dauka letaginetan, ahoaren barrengo aldean baizik gaineko hortz ttikien atzeko aldean.

Nozbait suge gorri bat bortz hilabetez eduki nuen kaja batean eta harek erakutsi zidan gauza -- aunitz, errate baterako, inoiz -- ez zuela autsikirik egiten ez bait zitzaion ukitzen.

XEHETASUN BATZUK.- Sugeak - gorrak direnez gero, ez dute a - ditzen; saltorik ere ez dute e - giten, antzineko aldeak bakar - goratzen dute lurretik. Mingaina ren bidez sumatzen dituzte soi - nuak; horregatik zerbait sumat - zean mingaina barrenerat eta kan - porat ibiltzen dute, baina min - ganean ez dute pozoirik aunit - zek uste duten bezala. Laster -- ttikia egiten dute eta hagitz -- garbiak dire: loia guruztu ondo - ren eskutan hartzen badituzu iku - siko duzu ez dutela zikintzen.

AZKEN LERROAK.- Ikusten du - gu, bada, sugeak baserritarrari eta bertze jendeari kalte egin - beharrean on egiten diola. Horre - gatik hemendik antzina lasai bi - zitzen utzi behar genioke. Nahi - ko kalte egiten diote sugeari se - gadorak eta negu epelak. Natura -

lezari utzi behar diogu bere neu - rriak hartzen animalia guzien bi - zimoduak erakusten digun bezala. Gure semeek eta semeen semeek -- bertze modura ikus ditzatela guk hain oker eta beldurgarri ikus - ten ditugun sugeak.

Autsikiak.- Suge gorriak aut - siki egiten duenean, zer egin? - Ez beldurtu, egon lasai, inoiz - ez lasterka hasi. Ikusi ongi non den autsikia eta lotu haren gai - nean, painulo, lokarri edo gerri - tako bat, odola ez pasatzeko mo - duan. Ondotik autsikia ideki na - bala edo bertze zerbaiten bitat - tez eta txupatuz odola eta pozoi - gahiena ateri. Hau laster egiten baduzu ez duzu beldurrik behar, baina lehen bait lehen mediku ba - tengana joanen zara.

Juanito

Lagun zuria

Ogi zati bat eskuan zula
Joxe eskolara zihoan
ta uste gabeen txakur zundi bat
jarri zitzaion onduan.

"Gose zera zu" esanaz, aurrak
botatzen zion zatia
txurikerika txakur goseak
jasotzen zuan guztiak

Aurrak eskuan zerakuskion
puska berria jaurta zezan,
zembat jauzi ta briko
egiten zitun nork esan...txakurrak

Batak bota ta besteak artu,
biak gozamen batean.....
txakur maltzurra ari joan zen
bozka aitu zitzaionean.

Ta kale ertzean an gelditu zen
erdi-negarrez mutilla:
etzuan uste txakur zar ura
zenbillenik ogi billa!

Ene Joxetxo gizagaxoa,
etzazu egin negarrik!
Orrelakuak, ai! ba' lirake
lau ankoak bakarrik!.

P. Fidel Sarriegi



UDA



Beran, ezkontza baten bezperan

Dhitura zahar hau, guri kontatu ziguten, laurogei urtetatik goiti duten Berako neskatxa batzuek.

Andregaiaren auzoko neskatxak palanka "jaunzten" zuten:

Azpian sedazko paperaz eta gainetik tula xuriz maxotaka lotuak. Lotzeko zintak kolorezkoak izaten ziren eta neskatxa bakoitzak bere arroxta paratzen zuen. Palankaren muturrean lore erramu polit bat bere arroxta ederrakin eramaten zuen.

Goizean, gazteak eta haurrak, palanka bizkarrean hartu eta, auzoaren inguruan kordionaren soinuaz ibiltzen ziren, altxaferuekin eta guzi.

Hamaiketakoaren orduan andregaiaren etxera joaten ziren eta salda hartzen zen. Palanka lurrean sartua, zutik, pixko bat oker antzan uzten zuten egun guzira.

Arratsaldean, andregaiak auzoko neskatxei berendua ematen zien. Berendua, etxean eginako postre bat izaten zen, baita ere gailetak, dultzea eta txokolatea. Ilunabarrean, mutilak andregaiaren etxe atarira joaten ziren. Palanka giltzaz jotzen zuten, lehendabizian mantso eta pixkan pixkan agudoago. Palanka ixiltzean bertsoak botatzen ziren; ondotik berriz palanka jotzen zen, gero bertsoak eta horrela. Andregaiak gazta eta gailetak, gizongaiak ardoa, eskeintzen zuten.

Bertsoak, betikoak eta tartean orduan gogotzen ziren batzuek botatzen ziren, "Dios te Salbe"ren doinuaz kantatzen ziren, hona hemen haietatik bi:

"Aspaldian ezkontzen zela
aditu genuen omena,
mutil gazte eder batekin
nobia doña Madalena" (1)

(1) Jakina, andregaiaren izena bertze bat zenean, errima aldatzen zela.

"Alabeza (2) ederra egin diote
haunitzek dute ikusi,
ohatze eder bat ere bai
Jergoi de muelle ta guzi."

(2) Alabeza, alabari ematen zitzaion ezkontzarako erregalua izaten zen. Famili aberatsetan dozenako alabeza ematen zen (hau da xurimanta amabinaka). Hainbertze ezin zuten familietan dozena erdiko alabeza ematen zuten.

Bada baita ere bertso erdika hau (gaineakoa galdua da eta)

"Haurtxo eder bat besoan
urte baten buruan ikusi
nahi dugu."

Gu Taldeak

UDAZKENA



- Euskeraz

Erreza-

Oraindik ez da dembora aunitz, gure artean ikusten zintugula zure sudur gorriakin moto zahar baten gainean.

Aspaldidanik etorria zinen, urrundikan etorria ere. Baina zure bizitzaren urte gehienak gure artean pasatu zenituen.

Noizbehinka gure herrira etortzen zinen nabalak zorroztera. Zu herrian sumatu orduko, badakizu jendeak zer erraten zuen: "euria eginen du agudo".

Behin batean ile diztiratsu zuen hiru urteko nexka bateri seguras ki euria eginen zuela erranerazi zioten eta zu hura entzutean, haserratu egin zinen. Eta nola haserratu gainera!

Zure ahotik atera ziren solasak ez ditut berrituko. Oroituko zara, nexka biziki izutu zela eta negarri eman ziola. Eta zu nexka hala ikustean, damutu egin zinen eta xamurki erran zenion:

-Ail! ez nere polita, ez nigarrik egin. Nik panpina bat, bai panpina polit bat ekarriko dizut.

Pasatu ziren egunak, pasatu ziren asteak, eta gure nexkatila oroitzen ez zen batean, zu berriro ere agertu zinen umeak zalapartaka gibeletik zenituela.

ZUTAZ OROITZEN,
ZORROTZAILEA

Orduan oraindik bizikletan etortzen zinen. Herri guzia oinez ibiltzen zenuen, eskuineko eskuaz bizikleta eutsiz eta ezkerrekoan soinuz zorrotza aterazten zenion txiribitua. Zer erranik ez, umeak biziki poztzen zirela zurekin.

Egun hartan gure nexka ikusi zenuen bezalaxe, kinuka hasi zinen eta hurbiltzeko erraten. Nexka harrituta gelditu zen eta bere ezin egonean zuregana joan zen. Zuk, agurtu ondoren "erran nizun ekarriko nizula eta...." bizikletako boltsatik panpin eder bat atera eta eman zenuen.

Eta ile hori eta diztiratsu zuten nexka harek, lotsaturik jostailua hartu zuen eta begiratu zintuen. Gero marmar zerbait erran zuen eta pozez beterik handikan aldegin.

Hori gertatu zenez geroztik, urte aunitz pasatu dire, baina oraindik ez naiz ahanzi eta nahiz berandu zure panpina hagitz polita zela erran nahi dizut.

Gero ere, behin baino gehiagotan ikusikatu zintudan herriz herri zure sudur gorriakin moto zahar baten gainean. Zu seguraski ez zinen oroituko nitaz, baina bai ni zutaz.

MENOPAUSIAZ ZENBAIT GOGORAPEN

Emakume adinduaren hilabete roko aroak aldaketa haundiak izaten ditu, bai bere neurkeran bai bere bizitasunean. Emakumeek berrek "regla" deitzen dutenak badi-tu bere "irregulartasun" haun -- diak.

Emakumearen hilabeterako aroaren funtsezko gertaera, hilabetekoa da. Horrela deitzen baitzaio 28 egunetatik 28 egunetara guti gora-behera agertzen den odol-jarioari. Erdaraz, periodo, regla, indisposición... ere deitzen zaio. Hogeita zortzi egunetatik gertatzen dela erran dugu, - baina guttitan etortzen da zuzen-tasun osoz. Hilabetekoaren iraupena eta bizitasuna aunitz aldatzen dire emakume batzutatik bertzetara edota urteko sasoi batzutatik bertzetara, bai eta adin - batzutatik bertzetara ere.

Pubertaroko adinean agertzen dire lehenbiziko aldiz hilabetekoak eta odol-jario horiek - gelditzen diren adinari MEMOPAU-SIA deitzen zaio. Adin horiek ez berdinak izaten dire norberaren, lekuaren eta arrazaren arabera.

"Klimaterio" aldian, edota herriak "adin kritikoa" deitzen dion garaia etortzen denean, emakumea sexu umotasuna galtzen hasten da eta pixkaka haurrak izateko ahalmena itzaltzen joanentzaio. Klimaterio deitutako denborak gehienetan urte batzuk irauten ditu, menopausia, berriz, - klimaterio barrenean gertatzen den azkeneko odol-jarioari erraten zaio.



Gure lurralde hotan meno -- pausia delakoa 45 eta 50 urteren artean gertatzen da. Batzutan 35 urtetarako etor daiteke eta bertzetan 55 edota 59 urtetan ere - bai.

Emakumeek klimaterio denboran gehienetan irregulartasun - batzuk izaten dituzte hilabete - koaren neurkerari eta odolketari dagokienez; honekin zera erran - nahi dugu, hilabetekoak ez duela egun jakinik eta odol-jarioa ere ezberdina izaten dela aldi bat - zutan eta bertzetan. Emakumeak, nahiz gorputzez nahiz gogoz ha - gitz neurridun eta iraunkorra - izan behar luke bere klimaterio denbora gorabeherarik gabe edo - nahasketa gutiz pasatzeko.

Okerkuntza haundia da klima - terio gauza anormala dela uste - izatea eta emakumeei horrelako - rik sinesteraztea. Agertzen diren nahasketa eta nahigabeak gurin - txa batzuek sortarazten dituzte,

Pubertaroa

Sortarazteko adina

Klimaterioa

Menarkia

Menopausia

here zeregina honez gero betet -
zen ez duten obarioek, alegia.

Hiru eratako ezaubideak, sei
naleak, agertzen dire klimaterioan: hodimotoreak, psikikoak -
eta gorputzekoak.

Ezaubide hodimotoreak gisa
honetakoak izaten dire: izerdial
diak, itoaldiak, xorazioak, bi -
hotz taupadak, buruko mina, beha
rritako burrunba, bularreko ez -
ker aldean estutasuna, hats har
tu ezina, alditxarrak.

Ezaubide psikikoen artean -
hok aipa ditzakegu: gogo aldake -
tak, oroimena galtzea, lo egin e
zina, sexu gogoa gutitzea, kasu
bakar batzutan indartu egiten a -
hal bada ere.

Gorputzeko ezaubideak funt -
sean hok izan daitezke: larru az
piko gantza gehiagotzea, gerrian,
gerri azpian, bizkar gainean eta
arpegian bereziki, ilepitsak gal
tzea eta sexu organoen indarra -
galtzea. Aldi berean bizkar hezu
rreko, eskuko behatzetako, biz -
kar gaineko eta belaunetako gilt -
zadurari eragiten dion artrosia
ere maiz agertzen da.

Berez ezinegonak, nerbiot -
suak, diren emakumeei itoaldi e -
ta izerdizko gorabehera horiek -
neke eta nahigabe haundiak ema -
ten dizkiete, bat bertzearen on -
dotik agudo etortzen baitire; e -
ta zenbat eta gehiago esperatu -
eta begi eman orduan eta bizia -
goak bihurtzen dire nahigabeak.
Gauetz ohatzean izerdi patsetan -
egoten dire maiz eta agerian gel
ditzen direnez gero, aunitan ka
tarro eta eztulak bereganatzen -
dituzte.

Gorabehera eta nahasketa hok
berezkoak diren gauzak bezala o -
nartu behar ditu emakumeak eta -
ez eritasuntzat eduki. Egia da -
batzutan, nahigabe horiek hagitz
biziak direnean, elkarbizitza na
hasi eta galera izaten dutela. Ho -
rrelako kasuek sendabide berezi
bat galdetzen dute eta nahigabe
guziak ez baditu kenduko ere, a -
rindu bederen egiten ditu gehie -
nak.

A. Valderrabano

Laharren ura

Behitikoa sendatzeko izaten
da.

Ze gai behar diren:

Lahar muturrak, limoia
eta ura.

Nola egiten den:

Esku bat ongi betea lahar
muturrez bildu eta baso
bat urekin, bortz minutuz
irakiten kontu. Ondotik
limoi bat xerratan ebakia,
gainetik botatzen zaio eta
bere hartan kontu bertze
bortz minutuz goilareta -
rekin estutzen direlarik.
Gero dena iragazi eta
prest dago; nahi bada ere
azukrea ematen ahal zaio.

Guri erdaraz emana

Gu Taldeak

LAKET



Joan den Irailaren hogeita zapien Laket-koekin mintzatu ginen eta hona hemen elkarrizketa hartan ateri ziren gauza garrantzitsuenak.
TTipi-TTapa.- Ager itzazue zeu en buruak.

Laket.- Fernan Irazoki, bate-ria jolea.

Jabier, Serapio Agina-garen biloba, pianoa.

Migel Artieda, baxua.

Kaki, lazkaotarra, gi-tarra.

Irantxu, bilbotarra, -kantaria.

TT.TT.- Zertan ari izan zarete Laket taldea egin baino lehen?
L.- Ezteietan, bodatan jotzen hasi ginen; gero Zizka taldea eratu genuen eta orain hemen.

TT.TT.- Laket-tik kanpora, zer tan aritzen zarete?

Jabier.- Enpresa zientzien ikasketak egiten ari naiz.

Fernan.- Laket-en jotzen dut, gero Laket-en lan egiten eta larunbata eta igandetan La ket- en jotzen dut.

Migel.- Unibertsitaterako Ori-entabide Ikasturtea estudiant-zen ari naiz.

Kaki.- Laster irratian lan eginen dut.
Irantxu.- Seguraski Berako os-tatu batean lan eginen dut.

TT.TT.- Zer iduritzen zaizki--zue balsa eta tangoa?
L.- Ez dire gaurkoak, ez dire gaur egunerako aproposenak ez bada gaujaialditarako edo ho--rrela.

TT.TT. Zer pentsatzen duzue mer-katal musikaz ?
L.- Musika berari baino salerosketari gehiago begiratzten zaiola. Kalitate gutikoa da.

TT.TT. Zein dire zuen idoloak eta gogoko dituzuen taldeak ?
L.- Who, The Police, Janis Joplin, Mikel Erreka, Madalena, Errobi, Mondragon, Kursaal, Odeia.

TT.TT.- Musikan ikasiak direnek, rock-en barrenean kalitateko musika badela aitortzen dute; baina gero, bakarrik jende batzuri, gazteari gehienbat, guztatzen zaio musika hori. Zergatik gertatzen ote da hori?
L.- Rock, belaunaldi bateko musika delakoz; Rockekin jendea elkar tu egiten da... gauza pila bat da, akonagarrria.

TT.TT.- Rock musikak badu zerikusirik bizimodu desberdin batekin? Iraultzailea da? Sistemaren kontra doaie?

L.- Rock azken buruan kultura bat da. Jendetza ixilerazten, mantsotzen eta eztitzen zebilen jende aunitz izorratu du Rockek.

TT.TT.- Rockek badu zerikusirik drogarekin?
L.-Gauza erraxa da Rock drogarekin lotu nahi izatea. Gizartearen goimailetan dabiltzaneren artean badaude ikaragarritzko droga kateak eta horiek ez dute deus ikusteko--rik Rockekin. Badago medikurik eta abokaturik ere egun puta osoa drogaturik egoten direnak.

TT.TT.- Argi dago zuek Rocken eta honen inguruko munduaren aldekoak zaretela. Baina gero, eguneroko bizian eta kabreatzen bazaitu ere, nahitaez bizibide bat hartu beharra izaten dugu...; kolpe haundia izanen da hori zuen pentsamoldearekin lotzerakoan, ezta?
L.- Baliteke, azken buruan dena itxurakeria baita. Gizartea rock ez denez gero, nahitaez hor sartua egon behar duzu; bertzela, erradazu nola ibili beharko duzun.

TT.TT.- Zer gertatu zitzaizuen Elbetean?
L.- Hagitz gaizki jokatu ziren gurekin. Alde guzietatik zernahi erran ziguten, sosa kendu... Aitzakitatzat, egiten duzuna eta zu re itxura hartzen dizute. Ez ziguten idorperikan paratu eta tresna guziak busti zitzaizkigun eta behin bustiz gero, tresnak hondatzeko eta min hartzeko arriskutan zaude. Iskanbila, ordurarte agertu ez ziren eta istilurako ailegatu zirenengandik etorri zen. Bazirudian giro txarraren kulpaguzia orkestak zeukala. Bestaren hutsegitea eta porrota izan zen.

TT.TT.- Txapelketa batera, sari-keta batera joan eta aukeratuen artean gelditu omen zineten.
L.- Bai, Donostiako Aurrezki Kutxan izan zen, zuzenean grabatzen zelarik. Berrogeita hamarrek izena eman zuten eta horietatik hamabortz aukeratu ziren aurrerako eta denak batera disko bat grabatzeko. Gainera 125.000 pzta. eta bortz emanaldi zen saria. Dela ko diskoa eta emanaldiak Azaroan eginen dire.

TT.TT.- Zein dire zuen gerorako asmoak?
L.- Musikagailuak ordaintzeko dirua eskuratu eta egunen batean gaubestak alde batera utzi eta guri atsegina zaiguna egitea gustatuko litzaiguke.

TT.TT.- Zer moduzko musikal kultu-
ra daukagu Bortzerrietan eta Erre-
kan?

L.- Alde haundia dago Hondarribi-
tik Berara Elizondo ingurura.

Hondarribin bihotza ukituta saltu
ka hasi ziren bitartean, Elbetean
tomateak botatzen zizkiguten gauza
berarengatik.

TT.TT.- Jendea zeuen alde daukazu?

L.- Jakina, zerbait goraka hasten
denean, uliak iratxi egiten dire.

TT.TT.- Zer iduritzen zaizue musika
klasikoa?

L.- Atsegin bazaizu ongi, baina ba-
da jende aunitz Operara joaten zai-
zuna eta nahiz eta jakinaren gaine-
an egon, eskuak jotzen dituen.

Frak jantzi eta andrea, bitxiak eta
edergailuak erakusteko....

TT.TT.- Zer egin musikal kultura
eskuratzeko?

L.- Bakotxak berak nahi duen kultu-
ra dauka, nahiz egia izan lagunga-
rri batzuk izan ditzakezula, hala
nola, egunkari, telebista edo bert-
ze edozein komunikabideren bitartez.
Eskolan, errate baterako, musikare-
kin duzun lehenbiziko harremanean
"Pepito eta Fermin"- en bizia ikasi
behar baldin baduzu, orduan musika
klasikoa kaka zaharra dela erranen
duzu. Hurrei musika sartzeko egi-
ten diren saiakera pizarrak gaizki
zuzenduak daude.

Musika onaren aldera eragiteko, dis-
koetxeen mafia aunitz desegin behar
litzateke. Horrela Rafaela Karrak
ez luke goian segituko. Jende izu-
garri aunitz desagertuko litzateke.
Elbetean badirudi mexikar kantak,
tangoak, "Pajaritos" eta gisa horre-
takoak aditzera usatuak zeudela.

Eta akojonagarriena zera da, hori
dena han dagoen jendearentzat egokia
bihurtzen dela. Irakasle bat hara
joaten bada eta gisa horretako
gauzak sartzen hasi, itxita dagoen
jende horrek badu lagungarri bat;
gero hartuko duen edo ez....

TT.TT.- Badiozue beldurrik zigorra-
ri?

L.- Lehenbizian itxura edo jantzeko
tankera dela eta, izan diezaiokezu
beldur pixko bat ematen ahal dizu-
ten zigorrari. Eta honetaz zerbait
gehiago erran nahi nioke jendeari:
itxura txarra edo ona, nahi duzun
bezala biziz hagitz ongi eta zori-
ontsu bizitzen ahal zarela. Hiru
koskoilu niri jendeak erraten
duenagatik, zer ostia, ni neone
naiz eta aski da horrekin, joder.
Onartu nahi naudenak onar nazala
eta onartu nahi ez nauena pikutara
joan dadila. Ez duzu bertzeekin
ongi gelditzeko bizi behar.....

TT.TT.- Nola ikusten duzue musika
lan ohiturazko bizibideen ondoan?

L.- Musika dela bide, era onez
bizi daiteke. Batek baxua edo gita-
rra joz ez badu ogibiderik aterit-
zen.... orduan ez da ongi ikusten.
Eta jendeak baxutik edo gitarratik
edota pintzeletik edo zizeletik
ateritzen dena ez badu istimatzen
..... baina ez du deus ikusten.
Herrialde puta honetan musika beti
hobbizat hartukatu da eta musikara
lotu dena erotzat edo bohemiartzat
jo. Hemen, horrelako jendearentzat
ez da egundaino azpiegiturarik
egon. Musikara lotukatu diren
guziak ostra baino galduagoak ibili
behar izan dute bizian, Batzuek
utzi behar izan dute, zeren eta...
Hemen bizibide guziak ohiturazkoak
izan behar baitute, medikuak edo
injineruak edo langileak.

GU TALDEAK



Cultura aldetikan

GERO ETA

NEKEZAGO

Sagarroia, bere egitez ere, nekez erditzen da; baiña are, bere faltaz nekezago. Zeren nola larruan baita latz eta gaztainakarloa bezala puntaz eta arantzez bethea; eta umeak ere bera bezala latzak eta arantzetsuak baititu; - ume hek erdi behar dutenean, bere arantzez eta karloez -- min egiten diote; eta halatan minari errendaturik, erditzeko meneratzen denean, barnerat sartzen ditu eta han ahal bezanbat edukitzen ditu. Eta nola hala dadutzan bitartean ere, handitzen eta gogortzen baitira ume hek; eta alabaiña erdi behar, edo hil; handik azkenean, harri baten kontra permaturik, lehen eginen zen baiño nekezago eta penazago erditzen da. *Sagarroien*

Axular Apeza

Leizarraga

Beraskoitzen(Laburdin)jaio zen. Badirudi apeza izan zela, eta gero Juana de Albret-en eraginez katolicismoa utzi ta kalbinista bihurtu zela. 1564 ean Sinodo Kalbinista bat egin zen, eta bertan protestantismoa zabaltzeko, Jaunaren Testamendu Berria euskarara itzuli behar zela erabaki zuten. Leizarragari eman zioten itzulpena egiteko lan hori.

Hiru liburu eskribitu zituen:


"Jesus Christ gure Jaunaren Testamendu Berria"

"ABC edo Christinoen instruxtionea" (Katecismoa)

"Kalendrera"

Hiruak 1571-ean argitaratuak izan omen ziren, Juana de Albretrek ordaindu eta.

"Heuskalduney"-en hasieran euskararen batasunaren beharra ikusten zuela, adierazten du. Gehiena laburteraz egin zuen, inoizka nafarreraren beherea eta zuberorera ere sartuz.



BERA ETA EUSKARA (I)

Beran euskera indartzen edo galtzen ari ote da ? Gisa honetako galdera bat egiten dugunean modu guzitako erantzunak a ditzten ditugu. Batzuek, azken urteotan euskara indartzen ari omen dela; bertzeek, gero eta gehiago galtzen ari omen dela; bertzeek, lehen orain baino gehiago solasten omen zela jendea; bertzeek, - orain lehen baino giro hobea omen dela euskararen alde.

Baina zoritxarrez gehienetan "omen" eta "omen" izaten dire gure erantzunak, ia beti iduripenekin solasten baikara. Horregatik datu argi eta fidagarriagoak eskuratu nahiz, Berako neska-mutikoei galdera pila bat egin nien. Hobeki errateko, Berako - 11, 12 eta 13 urteko neska- mutiko guziei galdetu nien, hala nola adin horretako 98 mutikoei eta 76 neskei, denetara 174 zirelarik.

Eta zer erantzun zuten neska-mutiko horiek?

Galdera batek honela zioen: BADA KIZU EUSKARAZ?

Eta mutikoek haxe erantzun zuten:

53 mutikoek, badakitela euskaraz.

14 mutikoek, konprenitzen dutela, baina ez direla - gauza solas egiteko.

31 mutikoek, ez dakitela eta ez dutela konprenitzen ere.

Orduan ikusten da, Berako 11, 12, eta 13 urteko mutikoek guti gora behera hirutatik bik dakitela euskaraz eta hirutatik batek ez dakiela.

Eta neskekin zer gertatzen da?

Neskek honela erantzun zuten:

24 neskek, badakitela euskeraz.

14 neskek, konprenitzen dutela, baina ez direla -
gauza solas egiteko.

38 neskek, ez dakitela eta ez dutela konprenitzen -
ere.

Zer ikusten dugu hor? Adin horretako neskek mutikoek baino aunitzez gutiago dakitela euskaraz Beran. Mutikoen artean - hirutatik bat baldin badike euskaraz ez dakitenak, nesken artean erdiak dire euskaraz deus ez daki tenak, hirutatik bat badakitenak eta bertze guti batzuk nahiz konprenitu, solasteko gauza ez direnak.

Berako datu hok Lesakako neska mutikoen datuekin gonbaratzen baditugu, garbi ikus daiteke Berako neska- mutikoek Lesakakoek baino franko gutiago dakitela euskaraz.

Bigarren galderak honela zioen:

ZUEN GURASOEN BADAKITE EUSKERAZ?



Hona hemen erantzunak:

Bortzetatik hiru t'erdi, bai aitak eta bai amak euskaraz badakitela erraten dute. Bortzetatik batek ez aitak eta ez amak ez dakitela; eta bertze bakar batzuek edo aitak bakarrik edo amak bakarrik dakiela erran dute.

Orduan zer ikusten da hemen? Gurasoen artean bortzetatik bat bakarra baldin bada euskaraz deus ez dakiena, guraso horien seme-alaben artean bortzetatik bi direla euskaraz ez dakitenak.


Hortik atera kontuak nolako ziztuan ari den galtzen - euskara gure artean. Eta hemendik ondorio triste eta ilun bat ere atera dezakegu: guraso franko badela Beran, nahiz heuren euskaraz jakin, beren seme-alabei erakusten es dietenak.

Badira bertze datu interesgarriak, baina ez dut soberra luzatu nahi eta bertze alditako utziko ditut. Bitartean denbora baduzu, ea zu ere euskararen hondamen eta desegite horretan - parte hartzen ari zaren edo ez zaren ari ikusteko.

Hurrengora arte,

PATXI.

Seme ~ alabak



eskolan apopilo

Eskola hasten denean eta gure seme-alabak mordoka eta itsuka hara bialtzen ditugunean, galdemodu hauek egiten ahal ditugu: Zergatik eskolara?, zertara?, Nola dago eskola hori?

Behar bada gutxietan erantzunik eman diegu, sakonki behintzat; hanitz pensatu gabekoak bai erraz: "Obligazioia dugulako", "gu baino gehixeagokoak ikusi nahi dugulako"... "Zerbait ikas dezaten"... "Buru hori gauzez bete diezaieten"....

Eta eskolak nola dauden? "Ez da gure kontutakoa". Hori gobernuaren edo herrikoetxeko edo, agian maixtruengauza da. "Eskola-etxea ongi baldin bada", ongi, eta "ez ba dago", "suerte txarra". "Klase barre nean honela lan egiten bada, "konforme", "horrela egiten bada", "hor konpon!, ez zaigu guri, berdini ez dugu deus konprenditzen!".

Hau martxa! Goizeko bederatzietatik arratsaldeko bosteraino seme-alabak eskolan apopilo uzten ditugu!.

Noiznahi tenore da ikuspuntutuz aldatzea. Gure seme-alabak gureak dira beti, eta eskolako adinean ere bai. Honek berekin dakar urbiltik segitu edo jarraitu beharko ditugula, beren bizimoduen berri jakin beharko dugula, eta, nahiz eta zenbait lanetarako besteen eskuetan utzi -irakasleen eskuetan kasu honetan-, gu izanen garela azken lagun eta maixtru.

Kontutan har daiteke guraso guztiak ez garela berdin prestatu-rik. Batzuk eskoladunak dira, besteak juxto-juxto, haur denboran, eskola aldenbertzez pasatu dute, hau da ate batetik sartu eta bestetik atera. Hortik gainera, orain estudiatzen direnak ez dira gureak bezalakoak.

Konforme! Baina ala ere, horrek ez digu gure erresponsabilitate tik alde eraginazten. Denak zenbait eginkizunen bidez laguntza handia seme-alabei eman diezaiekegu. Hona zenbait ohar:

- Normaltasun handiekin ikusi behar dugu maixtru edo irakaslee kin harremanak izatea, solas egitea eta beren iritzia edo opionea eskatzea, gurea ematen diegun bitartean. Honela, seme-alabak obekiago ezagutuko ditugu, eta guk beren lanari behar den garrantzia ematen diogula ikusiko dute - horrek lanerako animoa ekartze duen ondorioare kin gainera-. Egizki negargarria izaten da guraso eta irakaslearen arteko harremanak, haurra gaizki doanean bakarra egiten direnean. Bat zuen aldetik zer esan ez jakin, besteek zer adituko eta haurra erdian hara eta hona begira. Bai momentu txarrak!

Lasaiagoak izaten dira harreman normal batzuen barrenean.

- Gure etxeetan ere baditugu egin beharrak. Estudioetarako aisia eta trebetasuna ez da eskoletan bakarra biltzen. Zenbatenez eta kondizio eta giro ohea etxean eman, orduan erraztasun gehiago izanen dute beren lanak ongi eramateko.

Hortarako bada, lagundu behar diegu gauzetan erreparatzen (Obserbazioia), begi zorrotzekin ikusten, "zergatik horrela diren" galdetzen, eta txikitandik liburuak eskuetan erabiltzen.

- Nahitanahiez, eta eskolako azkene ko mailetan gehiago, gela edo toki apropos bat prestatuko diegu. Gehienetan gure suka deek ez dute hortarako balio, sekulako ixkanbilen lekua baitira.

Pentsa dezagun beste batetan: kuarto ixila, argia, mahi koskor batekin eta liburuak uzteko estante edo apal batzuekin. Hori izanen da bere lanerako lekua.

- Tokiarekin bakarra ez da dena egina. Gure seme-alabak debora bat ere nahi dute. Eskola orduetandik aparte, lanak izaten dituzte, edo estudiatu beharrak edo leitu nahiak. Noiz egin? Etxe bakoitzetan akordio batera etorriko gara guraso eta seme alaben artean denbora hori markatzeko. On da denen obligazioa izatea, horrela denak bete behar izateko. Guk kontutan hartuko dugu tenore horretan ez diegula deus lan edo mandatu bialiko; lehentxeago edo gerotxeago eginen diegu. Denbora hori estudiatzeko edo leitzeko da. Mesedez, ez ukitu!


Hiru puntu hauekin, beste batzuen artean, hasiko gara geuren seme alaben guraso izaten, klase denboran ere. Saia gaitzen horrelakoak egiten eta, ez garela eskolatik hain urrun, ikusiko dugu.

Honek guri, guraso bezala, eta bai eta ere eskolaren martxaro on eginen dio. Egizki behar dugu eta!



Iruñean, 1982-ko Irailaren 15-ean

LANDAXOKO



BERTSOLARITZA

Ez dira atzokoak honako bertso hok, ezta, ordea, hain aspaldikoak ere. Geure berraitatxi-amatxian garraikoak baitira. Orduan ere, ahosapaia sagardoz ongi busti ondoren, kantatuko zituzten oraindik aditzen ahal ditugun poeta-bertsolari saratar haren bertso ederrak.

JOAN BATISTA ELIZANBURU, 1828.e-ko Abuztuaren 14ean jaio zen Sarako Istilar auzoko "Piarresenea"n. Larre soroko Apaiztegia egon zen 21 urte bete zituen arte. Ikasketetaz gainera bertan edukitako hartu-emanek franko lagundu zuten ondotik bere baitan halako formazioa gorpuztu ahal izateko. Seminarioa utzi eta Frantziako Harmadara sartu zen. Hogeitazazpi urte zituela Urruñeko Euskal Bestetan antolatutako bertso txapelketan parte hartuz saria irabazi zuen "Emazte edalea" deituriko bertsoari esker. Geroztik bertsogintzan, sari mordoxka irabazirik, eta ejerzi toan, mailaz-maila kapitain izatera ailegatuz, pasa zuen 1868. urteraino ko denboraldia. Erretiratu eta herri ra itzuli zen 1870. urtean. Berrogei tabi urterekin Urruñeko Prantxa Eyhe raburu hartu zuen emaztetzat. Ez da sekula idazteaz aspertuko, hortan segituko du Saran 1891.eko Ilbeltzaren 2an, Gratien Adema "Zalduby" poeta eta lagun zaharra ondoan zuelarik, azken hatsa eman arte.

-1-

Ikusten duzu goizean,
argia hasten denean,
menditto baten gainean:
etxe ttipitto aintzin xuri bat
lau haitz-ondoren erdian,
xakur xuri bat atean,
iturriño bat aldean?...
Han bizi naiz ni bakean.

-2-

Nahiz ez den gaztelua,
maite dut nik sorlekua,
aiten aitek hautatua.
Etiket kanpo zait iduritzen
nonbeit naizela galdua,
nola han bainaiz sortua,
han utziko dut mundua,
galtzen ez badut zentzua.

-3-

Etxean ditut nereak,
akilo, (1) haitzur, goldeak,
uztari eta hedeak;
ihazko bihie, (2) ditut oraino
zoko guziak beteak;
nola iragan urteak
emaiten badu bertzeak
ez gaitu hilen goseak.

-4-

Landako hirur behiak,
esnez hanpatu ditiak,
ahaxe eta ergiak, (3)
bi idi handi, kopeta zuri,
bizkar beltz, adar handiak,
zikiro, bildots guriak,
ahuntzak eta ardiak,
nereak dira guziak.

Bertso aunitzen egile dugu gure saratarra. Bertzeak bertze "Iragan - besta biharamunean" ("Lau andren besta"), "Solferinoko itsua" edo hemen paratu dugun "Nere etxea edo Laboraria" dira bere lanaren adierazpen fidelak. Prosaz lantxo baten sortzaile da "Piarres Adame" deiturikoarena, hain xuxen.

Hitzak neurtu eta doinu zaharretan kantatzeko aski ongi egokitzen badaki Elizanburu bertsolariak baina ez ditu bapatean, momentuan eta jende aintzinean gogotu eta ixuritakoak, papera eta lapitza harturik patxadan pentsatu eta eskribituak baizik, "bertso paperak" alegia.

Erran bezala bertsoak inprobisatzen ez bazituen ere ez da horregatik ttikiagoa bere kreazioaren balioa. Ez ditugu hemen iritzi guztiak aipatuko baina bai poesian bai prosan lehen mailako idazletzat daukate kritikoek, XIX. mendean izan ziren poeten artean goienetakoak.

IKUSTEN DUZU GOIZEAN



Joan Bautista Elizanburu.

-5-

Ez da munduan gizonik,
erregerik ez printzerik,
ni bezain urusa denik;
badut andrea, badut semea,
badut alaba ere nik;
osasun ona batetik,
ontasun asko bestetik...
Zer behar dut gehiago nik?

-6-

Goizean hasiz lanean,
arratsa heldu denean,
nagusi naiz mahainean;
girstino bat ona dut hartu
nik emaztea hartzean;
ez du mehe (4) egunean,
sartuko uste gabea
xingar hezurrik eltzean.

-7-

Piarres ene semea,
nahiz oraino gaztea,
da mutiko bat errea:
goizean goizik bazken erdira
badarama artaldea,
segituz ene bidea,
nola baitu egitea,
ez du galduko etxea.

-8-

Ene alaba Kattalin,
bere hamaika urtekin,
ongi doa amarekin;
begiak ditu amak bezala,
zeru zola bezin urdin;
uste dut denborarekin,
oraiko itxurarekin,
andre on bat diot egin.

-9-

Ez dugu behar lurrean,
ongi bizirik etxean,
utzi laguna gosean;
ez du beharrak sekula jotzen
gure etxeko atean,
non ez duen mahainean,
otruntza (5) ordu denean,
leku bat gure aldean.

-10-

Ene andrea Maria,
ez da andre bat handia,
bainan emazte garbia;
iri batentzat badut etxean
nik behar dudan guzia;
gald'egiten dut grazia,
dudan bezala hasia,
akabatzeko bizia.

Ikusten duzu goizean

Andantino

BEHOB et C. DUFAN

I-kus-ten du-zu goi-ze-an, an-gi-a has-ten dene an, men-

-ditto ba-ten gaine-an, Ache i-i-pi-ito, antzin du-

-u bat, Lau haitz ondo-ren er-di-an, chakur shuru bat

athean, I-thurri-ño bat aldean, han bizi naiz ni baka-an.

KAPI

HIZTEGIA:

- 1.-Akilo=Ikuilu
- 2.-Ahaxe=Aretze
- 3.-Ergi=Txekor
- 4.-Mehe eguna=Bijili eguna
- 5.-Otruntza=Otordu
- 6.-Urusa=Alai, kontent, zoriontsu

LARUN TXIKITU

NAHI DIGUTE

Bai, ezin bada sinetsi ere, zoritxarrez, hala da, Larun TXIKITU nahi digute.

Gure aitonek eta birraitonek, eta haien aintzinekoak eman ziguten mendi harrigarri eder hau, bere hamar izugarrietan, bere ixiltasun eta pakean, bere ardi eta mandoetan, bere ainar eta belar finean, bere bele eta kabrietan, bere ihintz eta ur garbietan, TXIKITU nahi digute.

Nor ausartzen da, sorginaz, kontrabandistaz makiz, erregez, atzerritatuaz, desertorez, eta hainbertze kondair dakiten hamar hok urratzea?

Nor ausartzen da, gure seme, biloba eta heken ondotik heldu direnei, horrelako edertasuna ukatzea eta desegina ematea?

Bainan arrazoi hok, denak irrigarriak dire, mendi xehetu nahi dutenentzat, diru aunitz egin behar omen dute eta, "hori da garrantzisuen". Berriz ere aupada ematen zaio gaurko kontsumazko Gizar-teari; elkarrekin multzakatuak bizitzera eramaten gaituen gizarteari, ikez eta usai txarrez, arnas zikin bat iresterazten gaituen gizar-teari, jateko pozoituak ematen gaituen gizarteari, dena kutsatzen duten lantoki batzuk paratzen duen gizarteari, gero ondotik jende arrunta menian kontzeko paroaren mehatxu edo amenazaren bitartez estutzen gaituen sistema alua bateri. Eta ondoko mendeak, ez dut uste sistema hau jarraituko dutela, hondamenera eramaten duelakoz.

Ondoko mendeka, orain gu bezala, toki zabalak, baketsuak-ixilak, haize garbikoak, begietako ere atsegingarriak beharko dituzte, eta LARUN orain den bezala aurkitu beharrean, mendi gaina eta mendi aldapa guztia, etxez, bidez, bazter zikinez, usain txarrez, arbolik gabeko lekua, MENDIA ezin deitu zaion "gauz bat" aurkitzen badute, nola moldatu? nola bihurtu lehenengo zenera? Ez da modurik izanen. Etxe guztiek botata ere, bideak denak desegin ta ere, gizonak egindako armasak paratuta ere, arbolak landatu eta belarra ereinta ere, es da egundaino izanen naturak egindako lana bezain ederra.

Hau dena ez gertatzea, gaurko beratarretan, gure eskuetan dago, egitan erantzunbeharra haundia dugu.

Juan Ignacio Lanz

Banaki

Sartu zaiz
Kutuna
Nere biotz barrura
Une baten ber-bertan.
Egon zaite zeletan
Ikusi beregan
Zer gertatzen ote dan.

Ikusi
Maitea
Nola dagon asea
Maitasun on txukunez
!Sartu zaiz
Kutuna
Nere biotz barrura!

Jose Elzo-Azpiazu

Banaki nolaz banaki
zeru zola nolaz hunki

Joan naiz bidez, joan naiz larrez
Nundik nola zeru zola
Eskuz hunki beharrez.

Banaki.....

Joan naiz mendiz, joan naiz harritz
zeru zola hertxet zela
Laster laster eta irriz.

Banaki.....

Zeruaren hunkitzeko
Beti joan naiz, beti goiti
mendi-kaxkoz mendi-kaxko.

Banaki.....

Joan naiz bila eta bila
Hara urrun ez dakit nun
Han zagola zeru zola.

Banaki.....

Gelditu naiz iluntzean
Izerditan, nigarretan
Ereri naiz iratzean;
Zeru zola histen zela.

Ereri naiz otoitzean
Nigarretan, lorietan:
Ene bihotz biotzean
Bizten zela zeru zola.

Jean Marie Diharce "Iratzeder"

1947

Monzon- Olaso'neko Telespor

Alargun zoroarena

"Etxebeltz" baserriko
alargun zoroa,
egunez ez ageriko..
Gauaz irtetzen sorora..!

Ta illuna zulatuaz
irrintzi zorrotzez
bere itzok egazka doaz
mendiz mendi, oiartzunez:

"Ni naiz ni, - dio - alargun zoroa!"
Senar ta iru seme batean galdua...
Aien oiak oztu dizkit, guda madarikatua"

Bel- beltzez yantzi, illeak aske utzi,
egunaz gau egin ta gauaz irrintzi...
" Non dira beste zoro oiek, gudan nai zutenak
asi?".



Hemen paratzen ditugu,
Maiatzatik hasi eta hurrengo
4 hilabeteetan ezkondu ziren
beratarrak.

Edward James Bastyr Grabian
eta

Gema Diego Urkiola
Gizongaia Pittsburgkoa (Pensilba
nia).23 urte ditu.

Andregaia Berakoa eta Iruñean
bizi da.23 urte ditu.

Maiatzaren 14 ian, Berako Eliz
Nagusian ezkondu ziren.

Jose Arana Beraztegi

eta **Mertxe**

Inigez Barrenetxea.

Gizongaia Herrerakoa da, 34 urte
ditu.

Andregaia Beratarra 26 urte ditu.

Maiatzaren 15 ean, Berako Eliz
Nagusian ezkondu ziren.

Pedro Manuel Andres Magueda

eta

M^a Adoración Rico Merino.

Gizongaia Beran bizi dena, 34 ur
te ditu.

Andregaia Behobikoa.

Irunan espostu ziren.

Josu Iriondo Martiarena

eta

M^a Jesus Errandonea Agirre.

Gizongaia Debakoa 26 urte ditu.

Andregaia Beratarra, Latsanborda
koa, 27 urte ditu.

Berako Eliz Nagusian ezkondu zi
ren Maiatzaren 29 qn.

Martin Martinez Murugarren

eta

Kontxi Irazoki Urtxegi.

Gizongaia Bilarozkoa(Bizkaia),31
urte ditu.

Andregaia Berakoa, Attala Borda
koa, 23 urte ditu.

Uztailaren 17 an ezkondu ziren.

Foribio Alzugarai Sagardia

eta

M^a Antonia Calvo Foronda.

Gizongaia Sunbilakoa 22 urte.

Andregaia Beratarra, Igantzin

jaioa, 18 urte ditu.

Berako Eliz Nagusian Uztailaren

24 ean ezkondu ziren.

Jose M^a Igantzi Amorena

eta

M^a Carmen Goienetxe Arburua.

Gizongaia Beratarra, 28 urte

Andregaia Etxalartarra, 26 urte.

Berako Eliz Nagusian ezkondu zi
ren Uztailaren 31 ean.

Jesus Morcillo Urreta

eta

na Isabel Artieda Irazoki

Gizongaia Donostiarra 28 urte.

Andregaia Beratarra 27 urte

Berako Eliz Nagusian ezkondu

iren Abuztuaren 14 ean.

Jose Luis Teiletxea Etxarte

eta

Rosa M^a Vaquero Garate.

Gizongaia Zalain Zokokua,

Etxeberria baserrikoa 21 urte ditu

Andregaia Lesakarra, Elizondon

jaioa, 20 urte ditu.

Jesusen Bihotzaren Berako Elizan

ezkondu ziren. Abuztuaren 28 an.

Antonio M^a Roteta Fernandez

eta

M^a Rosario Elizalde Agirre

Gizongaia Diartzungoa, Lezon bizi
dena

Andregaia Beratarra, Uxanekoa, 26
urte ditu.

Guadalupeko Elizan ezkondu ziren

Irailaren 17 an.

JAIO

BERRIAK

Ana de la Fuente Lanz

Maiatzaren bederatziaren jaio zen.

Gurasoak Juan C. eta M^a Nieves.

Bidasoan 64.ean bizi dire.

Eneko Ado Zelaieta

Maiatzaren zortziaren jaio zen

Gurasoak Juan M^a eta M^a Nieves

Altzatan 25.ean bizi dire.

Mikel Endara Petrarena

Maiatzaren hamaseien jaio zen

Gurasoak Fermin eta M^a Jesus.

Asier IrurietaaAlmandoz

Maiatzaren hamazazpian jaio zen

Gurasoak Santiago eta Asunción.

Eztegaran 10. ean bizi dire.

Francisco J. Serrano Azpilikueta

Maiatzaren hogeian jaio zen

Gurasoak Eugenio eta Rosa M^a

Legian 46.ean bizi dire.

Imanol Zubieta Irizar

Maiatzaren 22an jaioa

Gurasoak Jose Manuel eta M^a Jose

Bidasoan 51. ean bizi dire.

Joseba Arbelaiz Igos

Ekainaren 10ean jaioa

Gurasoak Jose Ignacio eta

Guadalupe

Eztegaran 26. ean bis bizi dire.

Maria Pilar Martin Garcia

Ekainaren 13 an jaioa

Gurasoak Aristides eta Adela.

Errekalde etxean bizi dire.

Mikel Almandoz Irazoki

Ekainaren 20 an jaioa

Gurasoak Juan M. eta M^a Pilar

Urroalkoak dire.

Irene Petrarena Ansalas

Uztailaren 12 an jaioa

Gurasoak Jose M^a eta Isabel

EZKONDU

ETA

Javier Martinez Palacios

Uztailaren 26 an jaioa

Gurasoak Jesus eta **Josefina**

Jon Irazoki Martikorena

Uztailaren 30 ean jaioa

Gurasoak Jose M^a-Esperantza

Aita Attala Bordakoa

eta ama Marimartinekoka,dire

Francisko J. Ugalde Telletxea

Abuztuaren 7 an jaioa

Gurasoak Jose eta M^a Teresa.

Legian 11.ean bizi dire.

Orain aingeru bat da.

Alfonso Igantzi Larralde

Abuztuaren 21 ean jaioa

Gurasoak Alfonso eta Angeles

Bidasoan 15. ean bizi dire.

Ainhoa Ortega Mitxelena

Abuztuaren 29 an jaioa

Gurasoak Julian eta M^aJosefa

Eztegaran 26. an bizi dire.

Ainhoa Elgorriaga Tombo

Irailaren 11 an jaioa.

Gurasoak Fernando eta Consuelo

Euskaldunakoak dire.

Maria Aranzazu Gonzalez Calvo

Irailaren 9 an jaioa.

Gurasoak Jesus eta Carmen

Legian 41. ean bizi dire.

Esteban Pikabea Larralde

eta

Imanol Pikabea Larralde

Irailaren 16 an jaio ziren

Gurasoak Esteban eta Benita

Altzatan 15.ean bizi dire.

Laura Iglesias Juanikotena

Irailaren 22 an jaioa

Jose Ramón eta M^a Teresa.

Eztegaran 22.an bizi dire.

Beatriz Andueza Igoa

Irailaren 30ean jaioa

Gurasoak Enrique - Mercedes

Ilekuetan 16.ean bizi dire.

SOLUZIOAK

TRESNAK

- 1.-Igitai 2.-Eskuarea
- 3.-Gurdia 4.-Bahea
- 5.-Eskuorga 6.-Jorraia
- 7.-Haitzur 8.-Laia
- 9.-Sardea 10.-Aihotza
- 11.-Aizkora 12.-Sega
- 13.-Goldea 14.-Area
- 15.-Zumbila.

DESBERDINTASUNAK

- 1.-Zakurraren azazkala
- 2.-Zakurraren begitartea
- 3.-"PIG" hitzaren harridura zeinuak alderantziz.
- 4.-"CHHRRRR"-ek harridura bat gehiago.
- 5.-Zakurraren zangoa
- 6.-Zuhaitzaren adarra eskuin-aldean.
- 7.-Ulitxa
- 8.-Zakurraren koilarea
- 9.-Zakurraren sudurra

EGOERAK

- 1.-Umezurtz
- 2.-Mutilzaharra
- 3.-Ezkondua
- 4.-Andregaia
- 5.-Neskazaharra
- 6.-Ezkondugabea
- 7.-Senargaia
- 8.-Atatxi
- 9.-Mutil
- 10.-Amatxi
- 11.-Atsoa

JOKOAK

- 1.-Potepulla
- 2.-Xiritan
- 3.-Amoska
- 4.-Kainika
- 5.-TTabak
- 6.-Atxenes
- 7.-Pirlan
- 8.-Kukus
- 9.-Xanxari
- 10.-Mus

14 SAGAR MOTA

- 1.-Andra sagarra
- 2.-San Juan sagarra
- 3.-Geza xuria
- 4.-Ollokaka
- 5.-Burdin sagarra
- 6.-Geza gorria
- 7.-Udare sagarra
- 8.-Libera sagarra
- 9.-Sagar xabala
- 10.-Andre Mari sagarra
- 11.-Kanpandoja
- 12.-Urre sagarra
- 13.-Madalen sagarra
- 14.-Manda burua


LEGEAK

Euskeraz ongi leitu nahi baduzu, kontuan eduki itzazu lege hok.

it=tt; t, tt leitu behar da, aintzinean "i" duenean.
adibidez: iturri = itturri
in=ñ; n, ñ leitu behar da, aintzinean "i" duenean.
adibidez: egina = egina
il=ll; l, ll leitu behar da, aintzinean "i" duenean.
adibidez: oilasko = oilasko
ea=ia; ea, ia leitu behar da, hitz azkenean.
adibidez: atea=aia
oa=ua; oa, ua leitu behar da, hitz azkenean.
adibidez: astoa = astua
zb=zp; b, p leitu behar da aintzinean "z" duenean.
adibidez: ez bada etorri = ez pada etorri
zd=zt; d, t leitu behar da aintzinean "z" duenean.
adibidez: ez da etorri = ez ta etorri

Aintzineko gure aldizkarian, baserrietan, "Borda xuri" paratzen zuten lekuan "Luberri" paratu behar zen, eta "Kauko Borda" paratu beharra.



DENBORAPASAGARRIAK



Ea letraz betea dagoen kuadro honetatik ateratzen ahal dituzuen, jendeak suma ditzakeen 23 sentimendu:

Kontrakoak jarri, (huts
dauden tokiak bete ta).

Estu/ (z.b.l)
Latz/ (l..n)
Indartsu/ (.h.l)
Xukun/ (b.ld.r)
Lehen/ (.zk.n)
Argi/ (.l.n)
Arin/ (p.s.d.n)
Ixilka/ (b.rr.nb.k.)
Zorrotz/ (k.m.ts)
Arin/ (m.t.l)
Mami/ (.z.l)
Gogor/ g.r.)
Oker/(z.z.n)
Errez/ (z..l)





MESEDEZ ! MESEDEZ !
Etzazue gure Larun maitea zauritu

SUSPELAN BARNA



Migelteneko Borda



Garmendiko Borda



Begibeltxeneko Borda



Teiletzeko Borda



Nabasturen



Txanburneko Borda

